

KARTEL-LEHIAKETAREN OINARRIAK

ESKER ONEZKO JAIK

EZAUGARRIAK

TAMAINA: Inprimatze errearen tamaina **DIN-A3koa** izango da. Egileak beste neurri batzuekin lan egin dezake, betiere arestian aipatutako proportzionaltasunari eutsita.

TEKNIKA: Edozein teknika erabil daiteke, ordenagailuz egindako diseinu grafikoa barne. Nolanahi ere, aurkeztutako lanak paperean edo kartoi mehean entregatu beharko dira, festetan udal-aretoaren batean ikusgai jartzeko.

NAHITAEZKO TESTUA: Udalerriko armarri heraldikoa gehituko da (udal-bulegoetan entregatuko da) eta honako testu hau baino ez da agertuko:

OYÓN-OION 2022
FIESTAS DE ACCIÓN DE GRACIAS
ESKER ONEZKO JAIK
DEL 24 AL 29 DE AGOSTO
ABUZTUAREN 24tik 29ra

SARIAK: **400 €**-ko sari bat emango da helduen kategorian. Oyón-Oiongo Udalaren jabetzakoa izango da kartel irabazlea. Saritu ez diren kartelak beren jabeei bueltatuko zaizkie.

AURKEZPENA

MODUA: Parte-hartzaileek A eta B gutun-azal itxietan entregatuko dituzte proposamenak. **Gutun-azalen kanpoaldean aurkezten den kartelaren leloa edo izenburua agertuko dira.**

1) **A gutun-azala-** KARTELA sartuko da (euskarri zurruna, kartoi-luman edo antzeko euskarriren batean). Kartelaren atzealdean leloa edo izenburua zehaztuko da.

2) **B gutun-azala-** Egilearen izen-abizenak, posta-helbidea, helbide elektronikoa, NANaren fotokopia eta harremanetarako telefono-zenbakia zehaztuko dira. Horrekin batera, irudiaren kopia bat entregatu beharko da jpg edo pdf formatuan, 300 dpi-ko bereizmenarekin; hori euskarri digitalean aurkeztu beharko da: pendrive batean, CD batean, etab.

KOPURUA: Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez ere, hiru kartel aurkeztu ahalko ditu.

EPEA: Lanak **2022ko uztailaren 8ko** 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dira, udal-bulegoetan.

*Era berean, posta arrunt bidez bidalitako dokumentazioa **2022ko uztailaren 8rako egon beharko da udal-bulegoetan**, honako helbide honetan: Oyón-Oiongo Udala, KARTEL-LEHIAKETA, Plaza Nagusia 5 (PK.: 01320), Oyón-Oion (Araba). Parte-hartzaileen ardurak da dokumentazioa oinarrietan zehaztutako epeetan aurkeztea. Ez da onartuko jatorrizko dokumentazioa entregatzeko data eta ordutik kanpo jasotzen den dokumentazioa. Dena delakoagatik, ezinbesteko arrazoiengatik ere bai, lanak epaimahaia elkartu baino lehen udal-bulegoetan jasotzen ez badira, lan horiek baztertu egingo dira.*

HARTU-AGIRIA: Udal-bulegoetan ziurtagiri bat egingo da parte-hartzailearen izenean, eta hori gabe ezingo da lanik eraman.

EPAIMAHAIA

OSAERA: Epaimahaia enpresa grafikoetako eta argazki-enpresetako teknikariek osatuko dute. Epaimahaikide guztiak izango dute hitza eta botoa.

AUKERAKETA: Epaimahaiak bazterketa bidez egingo du aukeraketa, eta botoa sekretua izango da.

EPAIA: Epaimahaiaren epaia apelaezina izango da. Epaimahaiak bertan behera utz dezake lehiaketa gutun-azalak ireki gabe, baldin eta parte-hartzaileen kopurua sei baino txikiagoa bada. ***Sari-banaketa 2022ko uztailaren 17an izango da.***

JABETZA

ESKUBIDEAK: Saritutako kartelen eskubideak, beren osotasunean, Oyón-Oiongo Udalarenak izango dira.

ERAKUSKETA: Udalak eskubidea izango du aurkeztutako kartel guztiak erakusketa bat antolatzeko (sariak izan ala ez).

ITZULTZEA: Saritu ez diren kartelak 2021eko irailaren 1etik 15era jaso ahalko dira udal-bulegoetan, egileek hala eskatuz gero.

INFORMAZIOA: Edozein motatako informazioa jasotzeko, jarri harremanetan Oyón-Oiongo Udalarekin. Plaza Nagusia 5 (P.K.: 01320), Oyón-Oion (Áraba). Telefono-zenbakiak: 945-622190 / 622192.

ONARPENA: Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Epaimahaiak erabakita, saria eman gabe utzi ahalko da.